

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2380

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Ondarroan (Bizkaia) dagoen «Nuestra Señora de la Antigua» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Ondarroako (Bizkaia) «Nuestra Señora de la Antigua» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren ordezkariak hasarazitako espedienteaz aztertuta, zeinaren bidez baimen-aldaketa eskatzen duen «Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzea eta kontrolatzea» eta «Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza» erdi-mailako eta «Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzeko lana» eta «Itsas garraioa eta alturako arrantza» goi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak emateko instalazioak lekualdatzeko ikastetxearen egoitza-aldaketa egiteko. Era berean, «Mantentze elektromekanikoa» erdi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloa kentzeko eskatzen du.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraikiz egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE); 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa (uztailaren 30eko BOE), Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezarzen duena; eta gai horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den ikastetxeari baimentzen zaio egoitza-aldatzea, «Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzea eta kontrolatzea» eta «Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza» erdi-mailako eta «Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzeko lana» eta «Itsas garraioa eta alturako arrantza» goi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak emateko instalazioak lekuz aldatu direlako, bai eta «Mantentze elektromekanikoa» erdi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloa kentzea ere.

Kode-zenbakia: 48006531 eta 014781

Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua

Izen espezifikoa: «Nuestra Señora de la Antigua»

Titularra: Bilboko Elizbarrutia

Helbidea: Iturribarri 13

Udalerria: Ondarroa

Lurralde historikoa: Bizkaia

Baimena:

– Erdi-mailako heziketa-ziklo bat kentzeko: «Mantentze elektromekanikoa».

Ikastetxearen osaera:

– Lanbide Heziketa:

• Lanbide-arloa: itsasoa eta arrantza.

○ Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzea eta kontrolatzea, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

○ Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

○ Itsasontzien eta ontzien makineria mantentzeko lana, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

○ Itsas garraioa eta alturako arrantza, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

2. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek betetzen ez badira, ikastetxearen titularrak izango da horren erantzule.

3. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa. Datu pertsonalak tratatu eta «Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatuen Baimenak» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Lanbide Heziketako ikastetxe pribatuen erregistro ofiziala. Ikastetxeak irekitzeko eta ixteko baimenak eta ikastetxeen baimenen aldaketak.

Legitimazioa:

– Aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko beharrezkoa den tratamendua.

– 4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa.

– 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzekoa.

Hartzaileak:

– Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/133300-capa2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A02016R0679-20160504>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

2023ko maiatzaren 19a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo dirulaguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 10a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.